

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

5691

AGINDUA, 2024ko azaroaren 26koa, Hezkuntzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dirulaguntzak emateko dena, ikastetxe publikoetan Haur Hezkuntzako lehen zikloko plaza berrien azpiegitura-gastuak finantzatzeko, Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (NextGenerationEU).

NextGenerationEU funtsak eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (SEEP).

NextGenerationEU finantza-tresna Europako Kontseiluak onartu zuen 2020an, eta haren elementu nagusia Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM) da. Mekanismo horren helburua da Europar Batasuneko estatuen inbertsio eta erreformei laguntzea, suspertze jasagarria eta erresilientea lortzeko, eta, aldi berean, Batasuneko lehentasun ekologiko eta digitalak sustatzea.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana da Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak datozen urteetan egingo dituen jarduketak planifikatu eta garatzeko oinarritzko erreferenteetako bat; plan horri esker, zenbait ekintza ezarri ahal izango dira hezkuntza eta ezagutza, etengabeko prestakuntza eta gaitasunen garapena eraginkortasunez sustatzeko.

Ildo horretatik, Ministerioak erreforma- eta inbertsio-proiektuak diseinatu ditu giza kapitala indartzeko; izan ere, giza kapitala funtsezkoa da inbertsio- eta erreforma-planak nahi den eragina izan dezan, bai epe laburrean jarduera sortzen, bai epe ertain eta luzera ekonomiaren eta lan-aukera berrien egitura indartzen.

Suspertze Planeko palanka-politiketan, eta zehazki, VII. palankan (Hezkuntza eta ezagutza, etengabeko prestakuntza eta gaitasunen garapena), 21. osagaia dago: hezkuntza-sistemaren modernizazioa eta digitalizazioa, 0-3 urte bitarteko hezkuntza goiztiarra barne. Esparru horretan garatu du Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak (HLHM) Haur Hezkuntzako lehen zikloan eskolatzea sustatzeko lurralde-lankidetzako programa, titulartasun publikoko plaza berriekin (batez ere, 1 eta 2 urteko haurrentzat).

Programa hori eta programako jarduketak gauzatzea eta garatzea autonomia-erkidegoei dago-kie, dituzten eskumenen arabera. Lurralde-administrazio horien protagonismoa bat dator, gainera, EBko funtsak exekutatzek iradokitzen duen kobernante-espirituarekin; hori gorabehera, autonomia-erkidegoek jarduketa horiek arrakastaz gauzatu ahal izateko finantza-baliabideak behar dituzte.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko Kontseiluaren exekuzio-erabakiak (Council Implementing Decision-CID) ezartzen duenaren arabera, hau da CID helburua: «309 helburua»: Haur Hezkuntzako lehen ziklorako plaza berriak sortzea. Deskribapena: Haur Hezkuntzako lehen zikloa sustatzea, titulartasun publikoko plaza berriak sortuta (eraikin berriak edo zaharberritzea/birgaitzea eta ekipamendua, gutxienez, 60.000 plazatan –2020 amaierarekin alderatuta–, eta gastu operatibo horietatik, gehienez, 40.000 plaza, 2025era arte).

Programaren azken xedea da haurrek Haur Hezkuntzako lehen zikloan plaza irisgarria, esku-ragarria, inklusiboa eta kalitate handikoa izateko duten eskubidea zabaltzea, Haur Hezkuntzako lehen zikloan titulartasun publikoko plaza berriak sortuta (batez ere, 1 eta 2 urtekoentzat).

2004ko azaroaren 19an, azaroaren 16ko 215/2004 Dekretua argitaratu zen, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulua batzuk indarrean iraunarazten dituen (2., 3., 4., 5., 6. eta 11. artikulua eta lehenengo, bigarren, hirugarren, seigarren eta zazpigarren xedapen gehigarriak). Azken dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan. Horrela, bada, abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuak, tarte horietako eskaintza betetzeko lehentasun-irizpideen artean, ezartzen du titulartasun publikoko haur-eskolak sustatu behar direla, egungo eskaintza sendotuz.

Hezkuntzako sailburuaren martxoaren 19ko Aginduaren bitartez, lehenengo deialdia egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dirulaguntzak emateko, ikastetxe publikoetan Haur Hezkuntzako lehen zikloko plaza berrien azpiegitura-gastuak finantzatzeko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, lehia bidezko konkurrentzia-prozeduraren bitartez.

Deialdia Hezkuntzako sailburuaren 2024ko urtarrilaren 24ko Aginduaren bidez onartutako Hezkuntza Sailaren 2024rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan sartu zen, eta Sailaren euskadi.eus webgunean argitaratu, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 8.1 artikuluan xedatutakoa betez. Deialdi hau 2025. urteko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasoko da, aurreko deialdiaren beharrian eta helburu berari erantzuten dion heinean.

Lehenengo deialdia ebatzi ondoren, egiaztatu da zenbait udalek ez zutela eskabiderik aurkeztu, ezarritako epearen barruan aurkezterik izan ez zutelako; halaber, egiaztatu da ez dela esleitu eskuragarri dagoen kreditu guztia. Ondorioz, Haur Hezkuntzako lehen zikloko plaza berrien sorrera ahalik eta modu eraginkorrenean sustatzeko, bigarren deialdi hau egingo da, segidako konkurrentziaren bidez.

Deialdi hau izapidetzeko, abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 39. artikuluan eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 3.1.c) artikuluan ezarritakoa beteko da –Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espedienteak aurretiaz izapidetzea arautzeari buruzkoa da agindu hori–; izan ere, kreditu egokia eta nahikoa dago aurrekontuen 2025eko eta 2026ko ekitaldietan. Era berean, kontuan hartuko da Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 39. artikuluan xedatutakoa: «hurrengo ekitaldietako gastu-espedienteen alde aurretiko izapidetzea egiteko aukera ezartzen da, gastu-konpromisoa formalizatzeko fasera arte, Suspertze eta Erresilientzia Mekanisмотik eta REACT-EU programatik datozen funtsekin finantzatzen den edozein espedientetarako, xede horretarako erabilitako tresna edo negozio juridikoa edozein dela ere».

Hori dela eta, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearekin, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuarekin eta oro har aplikatu behar diren gainerako xedapenekin bat etorritik, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Xedea.

Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko udalei laguntzak emateko deialdia onartzea eta oinarriak ezartzea, 2021eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean sortutako titulartasun publikoko Haur Hezkuntzako lehen zikloko plaza berrien azpiegitura-gastuak finantzatzeko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek prozedura-gaietan arautzen ez duenerako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritakoa aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek berraztertze errekurtsoa jar diezaiokete Hezkuntzako sailburuari; horretarako, hilabeteko epea izango dute, agindu hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindu hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Baimena ematen zaio Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariari, agindu hau betearazteko beharrezkoak diren jarraibideak emateko.

AZKEN XEDAPENETAKO LAUGARRENA

Agindu honek onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta emandako dirulaguntza Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 26a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

I. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALEI LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIAREN
OINARRIAK, 2021EKO URTARRILAREN 1ETIK 2025EKO ABENDUAREN 31RA BITARTEAN
SORTUTAKO TITULARTASUN PUBLIKOKO HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOKO PLAZA
BERRIEN AZPIEGITURA-GASTUAK FINANTZATZEKO, SUSPERTZE, ERALDATZE ETA
ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN

Lehenengoa.– Xedea.

1.– Deialdi honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko udalak diruz laguntzea, 2021eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean sortutako titulartasun publikoko Haur Hezkuntzako lehen zikloko plaza berrien azpiegitura-gastuak finantzatzeko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Deialdi honekin finantza daitezkeen gastuetatik kanpo geratzen dira aurretik Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatu diren ikastetxeetako obrei dagozkienak, kontzeptu eta plaza berberengatik.

Plaza berritzat jotzen dira 2021eko urtarrila baino lehen ez zeuden hiru urtetik beherako haurrentzako eskola-plaza publikoak, kontuan izanik plaza horiek ezin dituztela inolaz ere ordeztu lehendik zeuden plazak. Laguntza horiek 2021eko urtariletik aurrera baimendutako eta hezkuntza-plaza gisa martxan jarritako plazen gastuetara bideratzen dira, kontuan hartuta obrak 2021eko urtariletik aurrera amaitu behar direla.

Sortzen diren plazek, martxan jarri aurretik, Hezkuntza Sailaren baimena izan behar dute Haur Hezkuntzako lehen zikloko zentro gisa, 297/2002 Dekretuaren eta 215/2004 Dekretuaren arabera.

Exekuzio-epea luzatu ahal izango da Hezkuntzako sailburuordearen ebazpen baten bidez, betiere Europako epeek horretarako aukera ematen badute.

2.– Jarduketa hori Haur Hezkuntzako lehenengo zikloan titulartasun publikoko plaza berriak –batez ere, 1 eta 2 urteko haurrentzat– ezartzeko sustapen-programaren barruan sartzen da, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (SEM) 21. osagaiaren esparruan («Hezkuntza-sistemaren modernizazioa eta digitalizazioa, 0-3 urte bitarteko hezkuntza goiztiarra barne»). Zehazki, C.21.I1 osagaian sartzen da: «Haur Hezkuntzako lehen zikloan titulartasun publikoko plazak sortzea (batez ere, 1 eta 2 urtekoentzat)».

3.– Oinarri erregulatzaile hauen arabera emandako dirulaguntzak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduak ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatzeko dira. Europako funtsekin finantza daitezkeen dirulaguntza horiek izapidetzeko eta emateko, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuan aurreikusitakoa aplikatuko da, aplikatzekoa den gainerako araudiari kalterik egin gabe.

Bigarrena.– Entitate onuradunak eta bete beharreko baldintzak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko udalek dirulaguntza hauek jaso ahal izango dituzte, baldin eta, beren eskumenak baliatuz, Haurreskolak Partzuergoak kudeatutako udal haur-eskoletan edo udal-titulartasuneko beste edozeinetan egiten badute diruz lagundutako jarduera.

2.– Ezingo dira laguntzaren edo dirulaguntzaren onuradun izan hauetako egoeraren batean dauden udalak:

2.1.– Epai irmo bidez, dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorra jaso badute edo prebarikazio, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoen bidegabeko eralgitzea, influentzia-trafikoa, iruzurak eta ordainarazpen ilegalak edo hirigintza-delituak direla-eta zigorra jaso badute.

2.2.– Hartzekodunen konkurtso boluntarioa deklaratzeko eskaria egin badute, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jota badaude, hartzekodunen konkurtsoan deklaratura badaude – konkurtso horretan hitzarmen bat indarrean jarri bada salbu–, epailearen esku-hartzearen mende badaude edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta badaude, hartzekodunen konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia oraindik amaitu gabe dagoelarik.

2.3.– Administrazioarekin egindako kontraturen bat suntsiarazita badute, dena delako kausagatik errudun deklaratuak izan direlako.

2.4.– Legezko ordezkaria Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bataerazintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean eta Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkek arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako bataerazintasun-araubideko kasuren batean sartuta badago, edo Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko kargua bada, lege horretan bertan edo gai horiek arautzen dituen araudi autonomikoan ezarritako baldintzetan.

2.5.– Indarrean dauden xedapenen bidez ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez badituzte.

2.6.– Egoitza fiskala erregelamenduaren arabera zerga-paradisu gisa sailkatutako lurralde edo herrialderen batean badute.

2.7.– Ebazpen irmo bidez dirulaguntzak eskuratzeko aukera galtzeko zehapena jaso badute, lege honen edo hala ezartzen duten beste lege batzuen arabera. Zehazki, ezingo dira dirulaguntzen onuradun edo entitate laguntzaile izan sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoak eta juridikoak, dagokion zehapenean ezarritako denbora-aldi osoan.

2.8.– Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitakoaren arabera, arau-hauste astun edo oso astunengatik zehatuta badaude, administrazio-bidean irmoa den ebazpen baten bidez, harik eta behar diren neurri zuzentzaileak hartu eta zehapena bete arte.

2.9.– Desgaitasuna duten pertsonentzat lege ezarritako erreserba-kuota betetzen ez badute, eta hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla ere egiaztatzen ez badute.

3.– Halaber, ezin izango dira onuradun izan Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluen 2., 3., 4. eta 5. apartatuetan azaldutako egoeraren batean dauden pertsonak edo entitateak. Eskatzaileak dirulaguntzak jasotzeko debekurik ez duela egiaztatzeko, aipatu berri den 13. artikuluen 6., 7., 8. eta 9. apartatuetan jasotakoa bete beharko da, eta aplikatuko da, halaber, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa.

Hirugarrena.– Finantzaketa eta kreditu erabilgarria.

1.– Deialdi honetarako, guztira, 4.207.837 euro bideratu dira, honela banatuta:

2025. urtea	% 40	1.683.134,80 €
2026. urtea	% 60	2.524.702,20 €
Dirulaguntza, guztira		4.207.837,00 €

2.– Emango diren laguntzen zenbateko osoak ez du kopuru hori gaindituko; inguruabar horren berri emango da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Hezkuntzako sailburuordearen ebazpen baten bidez. Ezarritako zuzkidura ekonomikoa agortu ondoren, eskaera guztiak ukatu egingo dira.

3.– Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzaren aurrekontuak behar adinako kreditua du hurrengo aurrekontu-aplikazioan, jarraian azaltzen den bezala:

Zentro kudeatzailea	Aurrekontu-posizioa	PEP elementua
1000722001	4.12281.72100	2022/001412

4.– Aipatutako zuzkidura ekonomikoa Europako Suspertze Tresnatik («Next Generation EU») eratorritako finantza-baliabideen bitartez finantzatuko da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduak ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez.

5.– Agindu honetan araututako laguntzak finantzatuko ditu jarduketak, abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 37. artikulua arabera, helburu izanik Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren arau-esparruaren arabera aukeratu daitezkeen jarduketak finantzatzea.

6.– Jarduketan finantzaketa Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 241/2021 Erregelamenduaren 17. artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztuko da, arau-testu beraren 5. artikulua errespetatuta.

Laugarrena.– Diruz lagun daitezkeen jarduketa eta gastuak.

1.– Diruz lagundu daitezkeen jarduketa honako hau izango da:

– Azpiegitura: unitate (ikasgela) berriak eraberritzea/birgaitzea, espazioa egokitzeko edo ikasgelak eraikitzeak eraberritzeak/birgaitzeak eta obrak behar dituzten ikastetxeetako eraikinetatik abiatuta; eta haur-eskola berriak eraikitzea.

2.– Deialdi honen bidez finantza daitezkeen jarduketek 2021eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra arteko exekuzio-epea izango dute. Exekuzio-epea luzatu ahal izango da Hezkuntzako sailburuordearen ebazpen baten bidez, betiere Europako epeek horretarako aukera ematen badute. Horretarako, udalek exekuzio-epea luzatzeko eskatu beharko diote Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari, eta behar bezala justifikatuko dute zergatik ezin den exekuzioa ezarritako epean amaitu, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 32.4 artikuluan ezarritakoarekin bat. Exekuzio-epea luzatzea erabakitzen duen ebazpenean, justifikazio-epea eta fakturak egin ahal izateko epea luzatuko dira, justifikazioan onar daitezen.

3.– Diruz lagundu daitezkeen jarduketek eta gastuek Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30. eta 31. artikuluetan ezarritakoa bete beharko dute; honi buruzkoak dira artikuluek, hurrenez hurren: diruz lagundu daitezkeen gastuak eta dirulaguntza jaso duten jarduerak kontratatzea onuradunek.



4.– Inbertsioa gauzatzeko, kontuan hartu beharreko zenbait baldintza ezartzen dira SEEParen 21. osagaiaren 8. atalean. Besteak beste, honako hauek:

- Eraikinen birgaitzean, kontuan hartuko dira eraikinen energia-eraginkortasunari buruzko (EB) 2018/844 Zuzentarauan jasotako gidalerroak, energia-kontsumo ia nuluko eraikinak izan daitezen, eta horrek aukera emango du lehen mailako energia ez-berriztagarriaren kontsumoa nabarmen murrizteko.

- Ur-aparatuak instalatzen direnean, horiek Batasunean dagoen produktu-etiketa bat izango dute. Obraren inpaktua saihesteko, uraren kalitatea zaintzearekin eta estres hidrikoa prebenitzearekin lotutako ingurumen-degradazioko arriskuak identifikatu eta landuko dira, uraren erabilera eta babesak kudeatzeko plan baten arabera.

- Neurriak Europako helburu hau bultzatuko du: azpiegitura-proiektuetan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinen (EHZ 17 05 04 kodea duten hondakinak izan ezik) % 70, gutxienez (pisuari dagokionez), beste material batzuk berrerabiltzeko, birziklatzeko eta errebalorizatzeko prestatzea, beste material batzuk ordeztzeko hondakinak erabiliz egindako betelanak barne.

- Eraikuntzan erabiltzen diren eraikuntzako osagaiak eta materialek ez dute amiantorik izango, ezta substantzia oso kezkagarriak ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1907/2006 (EE) Erregelamenduaren XIV. eranskinean jasota dagoen baimena behar duten substantzien zerrendan oinarrituta identifikatu denik.

5.– Errepikatzen ez diren gastuak finantzatzeko dira, baldin eta egiturazko aldaketa bat badakarte eta eragin iraunkorra badute erresilientzia ekonomiko eta sozialean, jasagarritasunean, digitalizazioan eta epe luzearako lehian, eta enpleguan.

6.– Diruz lagundutako jarduketak guztiek diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzun behar diote, eta behar-beharrezkoak izan behar dira 0-3 urteko Haur Hezkuntzako plaza berriak sortzeko. Gainera, ez dira urratu behar azaroaren 16ko 215/2004 Dekretuan ezarritako betekizunak. Dekretu horren bidez, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri ziren, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikuluko batzuk indarrean iraunarazi ziren (2., 3., 4., 5., 6. eta 11. artikulukoak eta lehenengo, bigarren, hirugarren, seigarren eta zazpigarren xedapen gehigarriak). Azken dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan.

7.– Ez dira diruz lagunduko Europar Batasunak klimaren eta ingurumenaren arloan dituen arauak eta lehentasunak eta «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa («do no significant harm – DNSH» printzipioa) erabat betetzen ez dituzten proiektuak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko ekainaren 18ko (EB) 2020/852 Erregelamenduaren 17. artikuluko ildotik. Entitate onuradunek bermatu beharko dute horiek guztiak betetzen dituztela.

Bosgarrena.– Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1.– Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 18.000 eurokoa da sortutako plaza berri bakoitzeko, erabilgarri dagoen kreditua agortu arte. Behin kreditua agortuta, horren berri emango da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragarki bat argitaratuta.

2.– Eskaerak modu ordenatuan ebatziko dira, espedienteak erabat osatuta geratzen diren unearen arabera. Gainerako kreditua ez bada nahikoa ebatzi beharreko eskaeran aurkeztutako plaza guztiak finantzatzeko, erabilgarri dagoen kreditu osoa adjudikatzea proposatuko da.

Seigarrena.– Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 9. artikulua arabera, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak finantzatutako inbertsio-proiektuek Batasunaren beste programa eta tresna batzuetatik jaso dezakete laguntza, baldin eta laguntza horrek ez badu estaltzen programa honen dirulaguntzak dagoeneko finantzatzen duen kostu bera.

Laguntza hauen bidez emango den finantzaketa ez da bateragarria izango Europar Batasunaren beste egitura-funts batzuen bidezko kofinantzaketarekin, eta ezingo da egon Europar Batasunaren finantzaketa bikoitzik, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Deialdi honetako laguntzekin ezingo dira finantzatu aurretik Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatu diren ikastetxeetako obrak, kontzeptu eta plaza berberengatik.

Agindu honetan araututako dirulaguntzen zenbatekoa ezin da inola ere izan, isolatuta edo beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua (% 100) baino handiagoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Legearen 16.3 artikulua, HFP/1030/2021 Aginduaren eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari dagozkion funtsei buruz garatzen den beste araudi baten arabera.

Gastu baterako dirulaguntza edo laguntza bat baino gehiago jasoz gero, diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainean lortutako soberakina itzuli beharko da, bai eta dagozkion berandutze-interesa ere (DLO, 37.3 artikulua.).

2.– Nolanahi ere, dirulaguntzaren onuradun den udalak entitate emaileari jakinarazi beharko dio beste edozein administrazio edo ente publiko nahiz pribatutatik helburu bererako dirulaguntzak edo laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak jaso dituen, Dirulaguntzen Araubidea erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14.d) artikuluan adierazten den moduan.

Zazpigarrena.– Dirulaguntzaren ordainketa.

1.– Dirulaguntza bi epetan ordainduko da:

a) Lehenengoa emandako guztiaren % 40 izango da, eta deialdi honen 12. oinarrian aipatzen den Hezkuntzako sailburuordearen Ebazpena egin ondoren ordainduko da.

b) Bigarrena gainerako % 60a izango da, eta diruz lagundutako jarduera behar bezala justifikatu eta dirulaguntzaren xedea eta helburua bete direla egiaztatu ondoren ordainduko da. Dirulaguntza jasotakoan, entitate onuradunak sarreraren kontabilitate-agiria aurkeztu beharko du.

Ezarritako justifikazio-aldia amaitu aurretik ordaindutakoak hartuko dira egindako gastutzat.

2.– Administrazioak dirulaguntza ordaindu ahal izateko, entitate onuradunak Eusko Jaurlaritzako dagokion datu-basean egon behar du. Alta emateko edo hirugarren interesdunaren datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzaren hirugarrenen erregistro telematikora jo beharko da: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/>

Zortzigarrena.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Dirulaguntzaren entitate onuradunak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko bitarteko elektronikoa erabiliz egingo ditu dirulaguntza hauen kudeaketarako izapide guztiak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2.a) artikuluan xedatua betez.



2.– Herritarrei arreta integral eta multikanala emateari eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateari buruzko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuak eta Platea E-Administrazioko Plataforma Teknologikoa onartzen duen Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenak arautzen dute izapidetze elektronikoa.

3.– Deialdi hau osatzen duten eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak bide elektronikoz izapidetzeko zehaztapenak helbide elektroniko honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1240802>

Eskabidea aurkeztu ondorengo izapideak –zuzenketak, justifikazioak eta errekursoak barne– «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak helbide honetan eskuratu daitezke: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

Bederatzigarrena.– Dirulaguntza kudeatuko duen organoa.

Hezkuntza Saileko Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak kudeatuko du dirulaguntza.

Hamargarrena.– Eskabideak aurkeztea, dokumentazioa eta epeak.

1.– Entitate eskatzaileek euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dute eskabidea, bai eta gainerako dokumentuak ere. Era berean, pertsona edo entitate eskatzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da prozeduran, hala ezarrita baitago azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan (10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzekoa).

2.– Deialdi honetan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea programa honen deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egun balioduneko 08:00etan hasiko da, eta aurrekontua agortutakoan amaituko.

Nolanahi ere, laguntza-eskaerak aurkezteko epea 2025eko urriaren 31n amaituko da, baita deialdian aurrekontu erabilgarria badago ere.

Aipatutako indarraldia amaitzen denean ez da beste eskaerarik onartuko. Aurrekontu erabilgarria agortu dela iragarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Hezkuntzako sailburuordearen ebazpen baten bidez.

3.– Eskaerarekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) 2021-2022, 2022-2023, 2023-2024 eta 2024-2025 ikasturteetan helburu bererako eskatu edo jasotako laguntzen zerrenda (II. eranskina).

b) Proiektuaren diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua, osoa, kontzeptuen arabera banakatuta eta entitatearen legezko ordezkariak sinatuta. (III. eranskina). Gainera, obren gastu-aurrekontuaren banakapen xehea aparteko dokumentu batean aurkeztuko da.

Agindu honetan araututako dirulaguntzagatik aurrekontu honetan sarrera gisa jasotzen den zenbatekoa eskatutako zenbatekoa dela ulertuko da.

c) Ikastetxeetako plaza publiko berrien zerrenda, eta obraren hasiera- eta amaiera-dataren aurreikuspena (IV. eranskina).

d) Zigor-aurrekarien ziurtagiria.

e) Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren funtsen kontura finantzatutako kontratuen erantzukizunpeko adierazpenak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (V. eranskina).

f) Kontrol-lanak egiteko sarbide-baimena (VI. eranskina).

4.– Gainera, beste agiri hauek ere aurkeztu behar dira, Europar Batasunaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan:

a) V. eranskina: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren funtsen kontura finantzatutako kontratuen erantzukizunpeko adierazpenak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. Hauek jasoko ditu:

i.– Benetako titulartasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko (EB) 2015/849 Zuzentarauaren 3. artikuluko 6. puntuaren arabera.

ii.– Erantzukizunpeko adierazpena, entitate eskatzaileak dirulaguntza honetako V. eranskinean jasotako inprimakiaren arabera behar bezala beteta, hau adierazten duena: egokitzen dela «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipiora («Do no significant harm – DNSH» printzipioa), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 2. artikuluko 6. apartatuari jarraikiz, bai eta, hala dagokionean, etiketatze klimatiko (% 0) eta digitalera (% 0) egokitzen dela ere, Ministro Kontseiluak 2021eko apirilaren 27an onartutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren aurreikusitakoaren arabera.

iii.– Interes-gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA).

iv.– Iruzuraren aurkako politikari atxikitzearen eta hura ezagutzearen erantzukizunpeko adierazpena.

v.– Finantzaketa bikoitzik ez duela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

vi.– Auditoetza egiteko eta funtsen erabilera kontrolatzeko inplikaturako administrazio publikoen artean datuak lagatzea onartzeko adierazpena, indarrean dagoen araudiaren arabera.

vii.– SEEPean (NextGenerationEU) ezarritako zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, baldin eta printzipio horiek kudeatu beharreko esparruari eragiten badiote.

b) Batzordearen, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoaren (OLAF), Europako Kontuen Auzitegiaren, Europako Fiskaltzaren eta Estatuko agintaritzaren eskudunen sarbiderako berariazko baimena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko (EB, Euratom) 2018/1046 Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluan xedatutako eskumenak balia ditzaten. (VI. eranskina).

Hamaikagarrena.– Dirulaguntza emateko prozedura.

1.– Segidako konkurrentziaren prozedura erabiliko da dirulaguntza emateko; Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 19.3 artikuluan dago ezarrita prozedura mota hori.

2.– Eskatera bat horretarako ezarritako epearen barruan jasotzen bada, Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak eskabidea eta harekin batera doazen dokumentuak aztertuko ditu.

Aurkeztutako eskabideak edo dokumentazioak oinarri hauetan edo deialdian ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, osatu gabe badago edo zuzen daitezkeen akatsak baditu, entitate eskatzaileari eskatuko zaio akatsa zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak eransteko, hamar egun balioduneko gehieneko epe luzaezinean. Hala egiten ez badu, eskabideari uko egin diola ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. eta 68. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

3.– Eskerak modu ordenatuan ebatziko dira, espedienteak erabat osatuta geratzen diren unearen arabera.

4.– Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak ofizioz egingo ditu datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko egin beharrekotzat jotzen dituen jarduketa guztiak, gero datu horietan oinarrituz ebazpen-proposamena egiteko.

5.– Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzako dagokion zerbitzuak eskaerak ebaluatu ondoren, egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuko duen txosten teknikoa egingo du. Txosten horretan jasoko da, organo kudeatzaileak esku artean duen informazioaren arabera, entitate onuradunak dirulaguntza jasotzeko behar diren baldintza guztiak betetzen dituen. Espedientea eta txosten teknikoa aztertu ondoren, Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du. Proposamen horrek entitate eskatzailearentzat proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoa eta hori egiteko jarraitutako ebaluazio-irizpideak jasoko ditu.

6.– Behin-behineko ebazpen-proposamena banaka eta elektronikoki jakinaraziko zaie interesdunei, egokitzen jotzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten 10 eguneko epean. Izapideak bide elektronikoz egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen «Nire karpeta» atalaren bidez: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

7.– Alegazioak aztertu ondoren, hala badagokio, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariak behin betiko ebazpen-proposamena igorriko dio Hezkuntzako sailburuordeari, ebazpena egin dezan.

Hamabigarrena.– Deialdia ebaztea.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena Hezkuntzako sailburuordeak emango du, eskaera jasotzen denetik hiru hilabeteko epean.

2.– Ebazpen hori banaka eta elektronikoki jakinaraziko zaie udalei. Ebazpenak bide elektronikoz jakinarazteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera jo beharko da: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Espediente guztiak ebatzitakoan, udal onuradunen zerrenda eta jasotako dirulaguntzen zenbatekoak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, denek horren berri izan dezaten.

4.– Epea amaitu eta interesdunari ebazpenik jakinarazi ez bazaio, eskabidea ezetsi egin dela ulertu ahal izango da.

5.– Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epean.

Hamahirugarrena.– Emateko ebazpena aldatzea.

1.– Dirulaguntza emateko edo ukatzeko kontuan hartutako baldintza objektiboak eta subjektiboak aldatzen badira, eta, nolanahi ere, aldi berean beste administrazio publiko batzuetatik edo ente edo pertsona publiko edo pribatuetatik –estatukoak zein nazioartekoak– dirulaguntzak lortzen badira –edo, hala badagokio, helburu bererako beste diru-sarrera edo baliabide batzuk–, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 25. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Emateko edo ukatzeko ebazpena aldatzeko prozedura ebazpena eman zuen organoaren erabakiz hasiko da beti, bere ekimenez edo entitate onuradunak eskatuta.

3.– Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzeko, espedientearen entzunaldi- eta ikustaldi-izapidea egin behar da aldeztu aurretik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikuluan aurreikusten den bezala.

Hamalauugarrena.– Justifikatzeko epea eta modua.

1.– Justifikatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera jo beharko da: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

2.– Justifikazio-agiriak aurkezteko epea 2026ko urtarrilaren 2an hasiko da, eta 2026ko otsailaren 16an amaituko. Udalek justifikazio-epea luzatzeko eskatu ahal izango diote Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari, eta behar bezala justifikatuko dute zergatik ezin den justifikazioa ezarritako epean egin. Hezkuntzako sailburuordeak epe hori luzatzea adostu ahal izango du, epea amaitu aurretik, Europako epeek horretarako aukera ematen badute.

3.– Dirulaguntza ordaintzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira, justifikazio gisa:

3.1.– Egindako gastuaren ziurtagiria, entitatearen legezko ordezkariak sinatuta.

3.2.– Egindako gastu guztien fakturak edo froga-balio bereko dokumentuak, haien ordainketa egiaztatzen duten bankuko egiaztagiriekin batera, Dirulaguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduaren 72. eta 73. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

3.3.– Diruz lagundutako jarduera egin izana eta dirulaguntza eman zenean ezarritako baldintzak bete izana justifikatzen duen jarduketaren memoria. Memoria horretan berariaz jaso beharko dira honako hauek, besteak beste:

a) Benetan egindako obren deskribapen laburra, obrak amaitu ondoren lanek eragindako eremuaren egoera, lanen emaitzen egiaztigiri grafikoa, obraren amaiera-data, eta plaza berriak martxan jarri diren edo martxan jarri diren eguna.

b) Entitate onuradunak «DNSH – Do No Significant Harm» printzipioa (ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa) betetzen dela egiaztatzeko ezarri dituen mekanismoak eta printzipio hori ezartzen dela ziurtatzeko neurri zuzentzaileak.

c) Ikuspegi intersektionala eta, bereziki, sexuari eta generoari dagokion alderdia errespetatzen dituen hizkera eta irudiak erabiltzeko betebeharra bete izana diruz lagundutako jarduera edo proiektuak behar dituen agiri eta material guztietan.

d) Diruz lagundutako jarduerarekin zerikusia duten argitalpenetan, iragarkietan eta publizitatean herritarren hizkuntza-eskubideak eta bereziki euskararen erabilera bermatu den modua.

e) Diruz lagundutako ekintzak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kargura finantzaketa publikoa izan duela informatzeko eta publizitatea egiteko obligazioa bete izanaren egiaztapena: dokumentu bidezkoa, materiala edo grafikoa.

f) Sarreraren eta gastuen balantzea.

3.4.– 2021-2022, 2022-2023 eta, hala badagokio, 2023-2024 ikasturteetan helburu bererako eskatu edo jasotako laguntzen zerrenda (II. eranskina).

3.5.– Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren funtsen kontura finantzatutako kontratuetako hornitzaileen erantzukizunpeko adierazpena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (VIII. eranskina).

4.– Finantza daitezkeen jarduketaren gastuak justifikatzeko, 2021eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean egindako fakturak onartuko dira, bi egun horiek barne, salbuespenez Hezkuntzako sailburuordearen ebazpen baten bidez exekuzio-epea luzatzea erabaki den kasuetan izan ezik; izan ere, halakoetan, luzatutako exekuzio-epearen azken egunera arte egindako fakturak onartuko dira.

5.– Justifikazio-epeak luzatu ahal izango dira, Hezkuntzako sailburuordearen ebazpen baten bidez, betiere Europako epeak horretarako aukera ematen badute. Horretarako, udalek justifikazio-epea luzatzeko eskatu beharko diote Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari, eta behar bezala justifikatuko dute zergatik ezin den justifikazioa ezarritako epean amaitu, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 32.4 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Hamabosgarrena.– Dirulaguntzak itzultzea.

1.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. eta 40. artikuluetan eta lege hori garatzeko araudian aurreikusitakoak izango dira dirulaguntza –osoa edo zati bat– itzultzeko kausa, betiere Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritako baldintzetan.

Halaber, aurkeztutako justifikazioaren ondorioz egiaztatzen bada dirulaguntzak gainditu egiten dituela benetan egindako gastuak, dirua itzultzeko egoki den prozedura abiaraziko da.

2.– Agindu honetan eta ezar daitezkeen gainerako arauetan ezarritako baldintzak betetzen ez badira, jasotako dirulaguntza eta dagozkion berandutze-interesak ordaindu beharko dira, ez-betetzearen berri izaten den unean, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren 77. artikuluan eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Legearen 36.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Ez-betetzeak mailakatzeko eta azken zenbatekoa edo, hala badagokio, itzuli beharreko kopurua zehazteko irizpide orokorrak eranskin honetako hogeigarren oinarrian jasota daude.

3.– DNSH printzipioak edo etiketa klimatikoari buruzkoak edo bederatzigarren artikuluan jasotako baldintzak «onuradunen betebeharrak bereziak, Europar Batasunaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa finantzatzeari dagokionez» betetzen ez badira, onuradunak ordura arte jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako moduan. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta itzulketei buruzko araubide orokorra erregulatzen da eta horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, araubidea eta obligazioak ezartzen dira.

4.– Jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharrak hori berdin aplikatuko da baldin eta mugarriak eta helburuak, egutegia, interes-gatazken adierazpenak edo SEEP–Next GenerationEUren araudiarekin lotutako beste edozein alderdi betetzen ez badira. Hori guztia 2023. urterako Estatuko Aurrekontu

Orokorren abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 7. artikuluko zazpigarren arauan eta abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 37.4 artikuluan ezarritakoaren arabera (36/2020 Errege Lege Dekretua, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko). Kontuan izango da, halaber, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamendua, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.

Ez-betetzearen arrazoia bada dirulaguntza ematerakoan kontuan hartu ziren obren zati bat bakarrik egin izana, itzuli beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, hau hartuko da kontuan: Haur Hezkuntzako lehen zikloko zenbat plaza egokitu diren benetan erabiltzeko, ebazpena egindako unean kontuan hartu ziren plaza guztien aldean.

5.– Inola ere ezingo da aldatu dirulaguntzaren zertarakoa edo xedea, ez eta emandako laguntzarekin lortu nahi diren helburuak ere; ezin izango da aldatu dirulaguntzari dagokion jarduera, jarduketa edo portaera, eta ezingo da handitu dirulaguntzaren zenbatekoa, dirulaguntza emateko ebazpenean agertzen dena. Aldaketak ezingo du eraginik izan onuradunak proposatu edo eskainitako alderdietan, dirulaguntza alderdi horien ondorioz eman bada.

6.– Itzulketa agintzen duen ebazpenean, beharrezkoa den informazioa jasoko da, itzulketa egiteko obligazioa bete ahal izateko, legezko diruz edo txekiz edo Hezkuntzako sailburuordeak baimendutako beste edozein bide erabiliz. Horretarako, bi hilabeteko epea emango da, dirua itzultzeko obligazioa ezartzen duen ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Eskuratutako zenbatekoak borondatez itzultzen ez badira, premiamendu-bideari ekingo zaio.

7.– Ikasketa-laguntzak aldatzeko, errebokatzeko edo itzultzeko ebazpenen berri eman ahal izango zaie agintari fiskal, akademiko edo, hala badagokio, judizialei, sor daitezkeen gainerako erantzukizunak eskatzeko.

8.– Behin dirulaguntza itzultzeko prozedura hastera erabakita, organo emaileak, kautelazko neurri gisa, erabaki dezake –bere ekimenez, Europako Batzordearen erabakiz edo Kontrol Ekonomikoko Bulegoak proposatuta– Administrazioak emandako beste dirulaguntza batzuk direla-eta onuradunari edo entitate laguntzaileari ordaintzeke dauden zenbatekoen ordainketa-aginduak etetea, baina inola ere ez da gainditu behar dirulaguntza itzultzeko espedienteari hasiera emateko proposamen edo ebazpenean ezarritako zenbatekoa –ordura arte sortutako berandutze-interesak barne–, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 34.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

9.– Era berean, agindu honetan, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 63. artikulua aplikatuko da.

Hamaseigarrena.– Entitate onuradunen betebeharrak.

Hauek dira onuradunen betebeharrak:

a) Dirulaguntza ematea bidezko egiten duen jarduera gauzatzea edo dirulaguntza ematea bidezko egiten duen egoeran egotea.

b) Entitate emaileari justifikatzea dirulaguntza ematea edo dirulaguntzaz baliatzea eragin duten baldintzak eta betekizunak betetzen direla eta jarduera aurrera eramane dela. Jarduera pertsonen buruzkoa bada, sexuaren arabera bereizitako datuak eman beharko dira.

c) Organo edo entitate emaileak egingo dituen egiaztatze-jarduketak onartzea, bai eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren kontrol-jarduketak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura eskuratu diren dirulaguntzen kasuan. Era berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi bereziak xedatutako jarduketak ere onartu beharko dituzte, bai eta finantzaketa dela-eta beste kontrol-organo batzuek egin ditzaketenak ere.

d) Beste edozein administrazioak edo ente publiko edo pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskuratuz gero, horren berri ematea entitate emaileari.

Dirulaguntza edo baliabide horiek jaso direla jakin bezain laster bidali beharko da jakinarazpena, eta, nolanahi ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.

e) Dirulaguntza ematerakoan kontuan hartu zen edozein egoera objektiboren edo subjektiboren aldaketa oro jakinaraztea dirulaguntza eman duen entitateari.

Dirulaguntza edo baliabide horiek jaso direla jakin bezain laster bidali beharko da jakinarazpena, eta, nolanahi ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.

f) Egiaztatzea, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik eta hura ordaintzeko unean, egunean dauzkatela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, baita dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak ere. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan ogasun-gaietako eskumena duen saileko titularrak agindu bidez arautuko du hori egiteko modua, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Legearen 14.f) artikuluan ezarritakoaren arabera. Orobat aplikatuko da Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa.

g) Izaera juridikoak hala eskatzen badu, kontabilitate-liburuak, eginbidetutako erregistroak eta gainerako agiriak behar bezala ikuskatuta edukitzea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatu behar zaizkion merkataritza- eta sektore-legeek ezarritakoaren arabera, bai eta dirulaguntzen oinarri erregulatzailerak eskatzen dituzten kontabilitateko egoera-orriak edo berariazko erregistro guztiak edukitzea ere, behar bezala egiaztatzen eta kontrolatzen direla bermatzeko.

h) Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzeko dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapenak edo kontrolak egiteko erabil baitaitezke.

i) Dirulaguntzaren xede diren programen, jardueren, inbertsioen edo edozein motatako jarduketan finantzaketaren izaera publikoa behar bezala jakinaraztea, gardentasunari buruzko legedian ezarritako terminoetan, hamazazpigarren oinarrian xedatutakoaren arabera –«Entitate onuradunen obligazio bereziak, Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa finantzatzeari dagokionez»– eta VII. eranskinean adierazitakoa kontuan hartuta.

j) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funtsak itzultzea, edo diruz lagundutako jardueraren edo jarduketaren kostutik gorakoa itzultzea.

k) Ikuspegi intersektzionala eta, bereziki, sexuari eta generoari dagokion alderdia errespetatzen dituen hizkera eta irudiak erabiltzea dirulaguntza jasotzen duen jarduera edo proiektuak behar dituen agiri eta material guztietan.

l) Diruz lagundutako jarduerarekin zerikusia duten argitalpenetan, iragarkietan eta publizitatean herritarren hizkuntza-eskubideak eta bereziki euskararen erabilera bermatzea.

m) Era berean, udal onuradunak informazioa emango dio Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari, laguntza jaso duen proiektuaren garapenari buruz, zuzendaritza horrek hala eskatuz gero.

Hamazazpigarrena.– Entitate onuradunen obligazio bereziak, Europar Batasunaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa finantzatzeari dagokionez.

Onuradunak, gainera, Europako eta Estatuko obligazio batzuk bete beharko ditu, Europar Batasunaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa finantzatzeari dagokionez. Horrenbestez, obligazio hauek izango ditu:

a) Proiektua diseinatzeko eta exekutatzeko fase guztietan eta jarduketa bakoitzerako banan-banan, «DNSH – Do No Significant Harm» printzipioa (ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa) erabat betetzen dela bermatzea, honako hauek ezarritakoarekin bat: Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana; Kontseiluaren Exekuzio Erabakia, Espainiako Suspertze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoa (Council Implementing Decision – CID); Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamendua; irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 5. artikulua (agindu horrek Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzen du) eta hura garatzeko araudia. Nolanahi ere, entitate onuradunek printzipio hori betetzen dela egiaztatzeko mekanismoak eta ezarpena ziurtatzeko neurri zuzentzaileak aurreikusiko dituzte, eta horren berri emango dute dirulaguntza justifikatzeko memorian.

b) Interes-gatazkarik, iruzurrik eta ustelkeriarik ez dagoela bermatzea, eta baldintzarik eta erreparorik gabe onartzea dirulaguntza eman duen administrazioak onartutako Iruzuraren Aurkako Neurrien Plana. Plan horren xedapenak bete beharko dituzte osorik, autonomia-erkidegoko, estatuko eta Europako araudia zeharo errespetatuz, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeari, antzemateari eta zuzentzeari dagokienez, eta Europar Batasunaren finantza-interesen babesaz bertako erakundeek har ditzaketen erabakiekin bat etorritik.

c) Onuradunak dirulaguntza ematen duen administrazioari jakinarazi beharko dio helburu bererako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk jaso dituela Estatuko edo nazioarteko beste edozein administrazio edo ente publikotatik, baina kostu beraren gaineko finantzaketa bikoitzik izan gabe.

d) Europako Batzordeak, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (OLAF), Europako Kontuen Auzitegiak eta Europako Fiskaltzak ezarritako kontrolak onartzea. Horretarako, dirulaguntzari buruz eskatutako informazio guztia emango zaie organo horiei, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan ezarritakoaren arabera.

e) Bermatzea entitateak badakiela finantzaketa hori Europar Batasuneko SEMetik datorrela eta, ondorioz, bere gain hartzen dituela Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren ondoriozko obligazio guztiak (erregelamendu horren bidez ezarri zen SEMa), bai eta finantzaketa horri ezar dakizkiokeen Batasuneko edo nazioko gainerako arau guztien ondoriozkoak ere. Inguruabar hori erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatu beharko da.

f) Berariaz baimentzea Batzordea, OLAF, Kontuen Auzitegia eta, hala badagokio, Europako Fiskaltza Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluko 1. apartatuan aitortzen zaizkien eskubideak baliatzeko.

g) Ordaindutako funtsen azken jasotzaile guztiak eta funts horiek aplikatzen esku hartzen duten gainerako pertsona edo entitate guztiak behartzea Suspertze eta Erresilientzia Planaren jasotako erreformak eta inbertsio-proiektuak aplikatzeko neurriak berariaz onartzera.

h) Jasotako funtsen aplikazioaren egiaztagiria –dokumentu elektronikoak barne– zaintzea eta gordetzea –bost urtez edo, finantzaketaren zenbatekoa 60.000 euro edo gutxiago bada, hiru urtez–, egiaztapen- eta kontrol-jarduerak egin ahal izan daitezzen, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko irailaren 23ko (EB, Euratom) 2024/2059 Erregelamenduaren 133. artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.f) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

i) Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikulua ezarritako komunikazio-obligazioak betetzea. Bereziki, inbertsioen jardueri buruzko informazio- eta komunikazio-neurrietan (informazio-kartelak, plakak, argitalpen inprimatuak zein elektronikoak, ikus-entzunezko materiala, web-orriak, prentsako iragarkiak eta txertaketak, ziurtagiriak, etab.), honako logoak sartu beharko dira: a) Europar Batasunaren enblema; b) Batasunaren ikurrarekin batera, jasotako finantzaketaren adierazpena jarriko da, erreferentzia honekin: «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana – Europar Batasunak finantzatua – NextGenerationEU». Europar Batasunaren enblema desberdina eta bereizia izan beharko da, eta ezingo da aldatu bestelako ikus-marka, marka edo testuak gehituz. Gauzatutako jardueri buruzko informazio- eta komunikazio-neurri horiek informazio-karteletan, plaketan, argitalpen inprimatuetan eta elektronikoetan, ikus-entzunezko materialean, webguneetan, prentsako iragarki eta txertaketetan, ziurtagirietan eta abarretan sartuko dira. Informazio-kartel eta plaka guztiak edonork ondo ikusteko moduko leku batean jarri beharko dira. c) 821/2014 Exekuzio Erregelamenduaren II. eranskinean ezarritako arau grafikoak eta kolore normalizatuak hartuko dira kontuan. Komunikazio-obligazioei buruzko jarraibideak VII. eranskinean daude jasota. Hemezortzigarren oinarrian zehazten da nola egiaztatu behar diren betebeharrak eta betekizunak.

j) Identifikazio-datuak datu-base bakarrean sartzeari, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluan eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluan adierazitakoaren arabera.

k) Diruz lagundutako jardueren exekuzioaren fidagarritasunaren eta jarraipenaren arduradunak izatea, une oro jakin ahal izateko zenbateraino gauzatu den jarduera bakoitza. Hirugarrenek garatu beharreko jarduketak izanez gero, aurreikusitako jarduketak lortuko direla ziurtatzeko mekanismoak ezartzea eta hirugarren horiek, dagokienez, Suspertze Planaren nahitaezko adierazle, zedari eta helburuen balioa zehazteko beharrezko informazioa ematea.

l) Inplikaturako administrazio publikoek elkarri datuak lagatzea onartzea, aplikatzekoa den Europako araudian aurreikusitakoa betetzeko, eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin eta Funtsen azken hartzailearen identifikazioa arautzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluaekin bat etorriz (informazio hori eskuragarri egon beharko da irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan arabera). Hori guztia Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluan garapen gisa egingo da.

m) Honako hauek ezarritako eskakizunak betetzeko konpromisoa hartzea: (EB) 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta Datuak Babesteko Lege Organikoa garatzeko Erregelamendua onesten duen

abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua. Proiektua amaitu ondoren ere, obligazio horrek indarrean jarraituko du.

Hemezortzigarrena.– Betebeharrak eta betekizunak egiaztatzea.

1.– Dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena eman aurretik eta hura ordaintzeko unean, egiaztatu egin beharko da egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan xedatutakoaren arabera (Agindua, 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeko, hurrenez hurren zerga-organo eskudunek edo Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako administrazio-ziurtagiri positiboak aurkeztu beharko dira.

2.– Zigor-aurrekarien ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da deialdi honen hirugarren oinarriko 2.1 eta 2.7 epigrafeetan zigor-kondenei buruz jasotako baldintzak betetzen direla.

3.– Konkurtso Erregistro Publikoak (<https://www.publicidadconcursal.es/>) emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da konkurtso-egoeran ez egotearen baldintza –agindu honen 2.2 epigrafean jaso– betetzen dela.

4.– Espedientearen organo kudeatzaileak zuzenean eskuratuko ditu dokumentu horiek organo eskudunetatik, eskuragarri dauden elkarreragingarritasun-zerbitzuen bitartez. Dokumentuak ezin badira zuzenean eskuratu, pertsona edo entitate eskatzaileak berak aurkeztu beharko ditu.

5.– Pertsona edo entitate interesdunak aurka egin ahal izango dio organo kudeatzaileak aipatutako inguruabarren egiaztagiria zuzenean eskuratzeari. Aurka eginez gero, berak aurkeztu beharko ditu dagozkion egiaztagiria.

6.– Europar Batasunaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketari buruzko betebeharrak bereziak egiaztatzeko, berariazko erantzukizunpeko adierazpena egingo da, eta eskabidean jasoko (V. eranskina).

7.– Gainerako betebeharrak eta betekizunak eskabideari atxikiko zaion erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatuko dira, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.4, 9.5, 13.1 eta 13.9 artikulua aplikatuz.

8.– Eskabidean, aukera egongo da laguntzak eskatzen dituen pertsonak edo entitateak berariaz adieraz dezan baimena ematen dion ala ez organo kudeatzaileari gainerako datu edo dokumentu guztiak lortu edo egiaztatzeko, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoak egiaztapen, kontrol eta ikuskaritzaren alorrean dituen ahalmenak. Baimena eman ezean, eskatzaileak berak aurkeztu beharko ditu organo eskudunaren administrazio-ziurtagiri positiboak.

9.– Ez da beharrezkoa izango Administrazioak duen dokumentaziorik eranstea. Ondorio horietarako, interesdunak dokumentazio hori zein egunetan eta zein organismo administratibotan aurkeztu zuen adierazi beharko du.

Hemeretzigarrena.– Aplikatu beharreko araudia.

1.– Dirulaguntza, bertan xedatutakoak ez ezik, arau hauetan xedatutakoak ere arautuko du:

a) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamendua, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.

b) 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko.

c) HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzen duena.

d) HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko entitateek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugariak eta helburuak betetzen ote diren kontrolatzeko eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenaren jarraipena egiteko.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legearen V. kapitulua.

f) 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea erregulatzea.

g) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

h) 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duena.

i) 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta itzulketei buruzko araubide orokorra erregulatzeko duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, araubidea eta obligazioak ezartzen dituen.

j) HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko prozeduretan interes-gatazka izateko arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa.

k) Hezkuntzako Estatu Idazkaritzaren 2021eko abenduaren 23ko Ebazpena, Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren 2021eko azaroaren 25eko Erabakia argitaratzen duena, zeinaren bidez Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren 21. osagaiaren esparruan Haur Hezkuntzako lehen zikloan eskolatzea bultzatzeko programarako kredituen lurralde-banaketa proposamena onartzen baita.

l) 297/2002 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko haurren Haur Eskolak arautzen dituen, 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan.

m) 215/2004 Dekretua, azaroaren 16koa, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulua batzuk indarrean iraunarazten dituen. Azken Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolek arautu zituen, 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan.

n) Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluen arabera, agindu hau ez dago estatu-laguntzen araubidearen menpe.

2.– Hauek ere aplikatuko dira:

a) Gobernu Kontseiluaren 2022ko otsailaren 8ko Erabakia, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jardueren eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenari, kudeaketari eta jarraipenari buruzkoa, Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren martxoaren 1eko 30/2022 Ebazpenaren bidez argitaratutakoa (2022ko martxoaren 4ko EHAA, 46. zk.).

b) Gobernu Kontseiluaren 2022ko martxoaren 29ko Erabakia, «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez eragitekoak betetzeko neurrien plana» onartzen duena, Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariak erabaki hori argitaratzeko emandako apirilaren 6ko 40/2022 Ebazpenaren bidez argitaratutakoa (2022ko apirilaren 13ko EHAA, 74. zk.).

c) Hezkuntzako Estatu Idazkaritzaren 2022ko abenduaren 28ko Ebazpena, Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren 2022ko abenduaren 13ko Erabakia argitaratzen duena. Erabaki horren bidez, autonomia-erkidegoek Haur Hezkuntzako lehen zikloan titulartasun publikoko plaza berriekin eskolatzea bultzatzea (batez ere, 1 eta 2 urteko haurrentzat) helburu duen Programarako kudeatutako kredituen lurralde-banaketaren proposamena eta banaketa-irizpideak onartzen dira, 2022ko aurrekontu-ekitaldian, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren 21. osagaiaren esparruan («Hezkuntza-sistemaren modernizazioa eta digitalizazioa, 0-3 urte bitarteko hezkuntza goiztiarra barne»).

d) Hezkuntzako Estatu Idazkaritzaren 2023ko abenduaren 19ko Ebazpena, Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren 2023ko abenduaren 13ko Erabakia argitaratzen duena. Erabaki horren bidez, Haur Hezkuntzako lehen zikloan titulartasun publikoko plaza berriekin eskolatzea bultzatzea (batez ere, 1 eta 2 urteko haurrentzat) helburu duen Programarako kredituen lurralde-banaketaren proposamena onartzen da, 2023ko aurrekontu-ekitaldian, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren 21. osagaiaren esparruan («Hezkuntza-sistemaren modernizazioa eta digitalizazioa, 0-3 urte bitarteko hezkuntza goiztiarra barne»).

Hogeigarrena.– Ez-betetzeak mailakatzeko eta azken zenbatekoa edo, hala badagokio, itzuli beharreko kopurua zehazteko irizpideak.

1.– Xedea. Oinarri honetan ezartzen da zer mailakatze-irizpide aplikatu behar diren ez badira betetzen agindu honen bidez araututako dirulaguntzak emateko baldintzak, hartara zehazteko zein den onuradunak jaso beharreko azken zenbatekoa edo, hala badagokio, Administrazioari itzuli beharrekoa kopurua.

2.– Proportzionaltasun-printzipioa. Euskal Autonomia Erkidegoko Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzearen 21eko 20/2023 Legearen 9.4.m) artikulua arabera, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuko da jaso beharreko zenbatekoa edo itzuli beharrekoa zehazteko, betebeharren eta ezarritako baldintzen betetze-mailaren arabera.

3.– Ez-betetzeak mailakatzeko irizpideak. Hauek dira ez-betetzeak mailakatzeko irizpideak:

a) Diruz lagundutako helburuak edo jarduerak partzialki ez betetzea:

Onuradunak helburuak partzialki betetzen baditu edo diruz lagundutako jarduera batzuk baino ez baditu egiten, laguntza egindako jarduera-ehunekoen edo benetan lortutako emaitzen ehunekoen arabera proportzionalki murriztuko da.

Kasu horretan, azken zenbatekoa kalkulatzeko, emandako dirulaguntzaren guztizko zenbatekoari benetako betetze-ehunekoa aplikatuko zaio.

b) Proiektua edo jarduera gauzatzeko ezarritako epeak ez betetzea:

Exekuzio-epeak ez badira osorik betetzen, baina proiektua edo jarduera, berandu bada ere, amaitu egiten bada, dirulaguntza doitu egingo da, atzerapenaren arabera eta atzerapen horrek jardueraren helburu orokorretan izan duen eraginaren arabera.

Epeak ez betetzeak dirulaguntzaren xedean eragin larria badu, jaso beharreko zenbatekoa murriztu edo itzulketa eskatu ahal izango da.

c) Gastuak behar bezala ez justifikatzea:

Egindako gastu guztiak ez justifikatzea ez-betetze partzialtzat joko da, eta dirulaguntzaren zenbatekoa justifikatu gabeko gastuen zenbatekoaren arabera proportzionalki murriztuko da.

Justifikazioan ez-hautagarritzat jotzen diren gastuak jaso beharreko azken zenbatekotik deskontatuko dira.

d) Agindu honetan edo aplikatu beharreko legedian ezarritako betebeharrak ez betetzea:

Ez-betetzeak detektatzen badira betebeharrak espezifikoetan, hala nola komunikazio- edo zabalkunde-betebeharretan edo funtsak zuzen erabiltzeko betebeharrean, laguntzaren zenbatekoa ez-betetze horren larritasunaren arabera proportzionalki murriztuko da.

Ez-betetzeak arinak direnean, dirulaguntza ehuneko txikiagoan murriztu ahal izango da; ez-betetzeak astunak edo errepikakorrek direnean, aldiz, zenbateko osoa itzultzeko eska daiteke.

4.– Dirulaguntza itzultzea. Helburuak, ezarritako baldintzak edo justifikazio-betebeharrak inondik inora betetzen ez badira, jasotako zenbateko osoa itzuli beharko du onuradunak, dagozkion berandutze-interesak barne.

5.– Ez-betetzeak baloratzea, eta azken zenbatekoa zehazteko prozedura. Ez-betetzearen maila jarraipen- eta ebaluazio-txostenen arabera baloratuko da, aplikatu beharreko araudian ezarritako prozedura baliatuz.

Hogeita batgarrena.– Etiketatze berdea eta digitala.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 Erregelamenduaren arabera (Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 21.11 osagaia), jarduketa horrek ez dio ekarpenik egiten trantsizio ekologikoari («etiketatze berdea»: % 0), ezta digitalari ere («etiketatze digitala»: % 0).

Ondorioz, diruz lagundutako entitateek ez dute inolako baldintza espezifikorik bete behar etiketatzeari dagokionez.

Hogeita bigarrena.– Iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken arriskua prebenitzea.

1.– Baldintzak betetzen direla egiaztatzeko prozesuetan parte hartzen duten pertsonak adieraziko dute osorik eta inolako erreparorik gabe ezagutzen eta onartzen dituztela Gobernu Kontseiluaren 2022ko martxoaren 29ko Erabaki bidez onetsitako planaren baldintzak («Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez

eragitekoak betetzeko neurrien plana»). Dirulaguntza emateko eskumena duen organoaren arduradunak, dirulaguntzaren oinarriak edo deialdia idazten dituzten langileek, eskaerak ebaluatzen dituzten aditu eta batzordekideek, baita jarduketa horietan Administrazioari laguntza eta aholkularitza ematen dioten entitate pribatuetako pertsona fisiko guztiek ere, iruzurraren aurkako neurrien plana ezagutu eta onartu behar dute.

2.– Urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan adierazitako ondorioetarako, bertan ezarritako prozedurak aplikatuko dira.

Gainera, agindu hori betetzeko, laguntza emateko eskumena duen organoak nahitaez sinatu beharko du agindu horrek xedatzen duen interes-gatazkarik ezaren berariazko adierazpena, zeina IX. eranskinean jasota baitago. Eragiketaren arduradunak, gainera, HFP/55/2023 Aginduaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera bete behar du interes-gatazka izan daitekeena egiaztatzeko prozesua. Prozesu horretan bandera beltz bat edo gehiago antzematen badira, HFP/55/2023 Aginduaren 7. artikuluan xedatutako prozedura jarraitu beharko dute.

3.– Aurreko apartatuetan aipatutako pertsonen interes-gatazkarik ezaren adierazpena beteko dute (IGEa), oinarri hauetako IX. eranskineko ereduarekin bat etorritz.

4.– Interes-gatazka eragin dezakeen kausaren batean dauden agintariek eta langileek ez dute parte hartuko prozeduretan. Norbaitek uste badu interes-gatazkaren bat egon daitekeela, hierarkian gorago dagoenari jakinaraziko dio, idatziz; zerbitzu juridikoek txostena egingo dute, eta hartu beharreko erabakia hartuko da. Hori guztia egingo da, hargatik eragotzi gabe HFP/55/2023 Aginduan kasu zehatzetarako ezartzen den prozedura berezia.

5.– Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, bere kabuz edo Estatuko Administrazioako Kontu Hartzailletza Nagusiarekin lankidetzan arituz (III. maila), auditoria espezifikoak egin ditzake interes-gatazkak prebenitzeko, atzemateko eta zuzentzeko neurri egokirik ote dagoen ikusteko.

6.– Interes-gatazka bat hautematen denean, kasuan kasuko legezko arau eta barne-erregelamendu aplikagarrien araberrako neurriak hartuko dira. Era berean, interes-gatazkaren egoeraren berri eman beharko da gardentasun-printzipioa betetzeko.

Hogeita hirugarrena.– Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren entitate betearazleak.

1.– Irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan eta HFP/1031/2021 Aginduan ezarritakoaren arabera, hau da entitate betearazlea: dagozkion eskumenen barruan birgaitzeen eta inbertsioen proiektuak edo azpiproiektuak bete behar dituen entitatea, entitate erabakitzailearen irizpide eta jarraibideekin bat etorritz.

2.– Tokiko eremuan, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren entitate betearazleak dira Toki-araubideen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 3. artikuluan adierazitako toki-entitate guztiak, azpiproiektu bat esleitura badute; hau da, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko ekintzaren bat egiteko funtsak jaso badituzte, erabilitako tresna juridikoa dena delakoa izan arren.

3.– Aurrez esandakoaren ondorioz, entitate onuraduna, entitate betearazlea ere badenez, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren COFFEE plataforma kudeatzearen arduraduna izango da.

Hogeita laugarrena.– Jarraipena, kontrola eta ebaluazioa.

1.– Suspertze eta Erresilientzia Planeko funtsak jasotzeko, idatzizko konpromiso bat aurkeztuko da beharrezko eskubide eta sarbide guztiak emanez, Batzordeak, OLAFek, Europako Kontuen Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta Estatuko agintari eskudunek kontrol-eskumenak balia ditzaten bermatzeko, 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Agindu honetan araututako laguntzak emateko ezarritako baldintzak bete direla eta aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 20/2023 Legean eta hura garatzen duen araudian ezarritako prozedurak erabiliko dira, eta abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 63. artikuluan aurreikusitako neurri bereziak aplikatuko dira, bai eta, hala badagokio, aplikatu behar den Europar Batasunaren araudia ere.

3.– Edonola ere, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako ezarritako jarraipen, kontrol eta ebaluazioaren mende egongo da dirulaguntza, baita barne-araudian eta Europar Batasunekoan EBren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismorako ezarritako obligazioen mende ere, nahitaez aplikatzekoak badira (informazioari eta publizitateari, kontrolari, egiaztapenari, jarraipenari eta ebaluazioari buruzko obligazio espezifikoak eta gainerako obligazioak).

4.– Zehazki, dirulaguntza ematen duen Administrazioak datuen kategoria harmonizatuak bilduko ditu, formatu elektronikoa, Suspertze eta Erresilientzia Planaren esparruan erreformak eta inbertsio-proiektuak gauzatzeko neurriekin lotutako funtsen erabilera ikuskatu eta kontrolatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2 d) artikuluan zehaztutakoarekin bat etorriz.

5.– Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza izango da jarraipena egiteko organo eskuduna, dirulaguntzaren xedea betetzen dela bermatzeko.

Hogeita bosgarrena.– Azpikontratazioa.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 31. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, laguntza hauen entitate onuradunak jardueren % 100 arte azpikontratatu ahal izango du partzialki.

Horretarako, aipatutako 31. artikuluan eta hura garatzeko araudian xedatutakoa aplikatuko da. Organo emaileak azpikontratista posibleen identifikazio-datuak gorde behar ditu, hala badagokio, funtsen azken hartzaile gisa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Entitate onuradunak, nolanahi ere, idatziz eman beharko dio azpikontratistei buruzko informazioa dirulaguntza eman duen organoari, bai eta kontrata edo azpikontraten interes-gatazkarik ezaren adierazpenak (IGEA) helarazi ere.

Hogeita seigarrena.– Dirulaguntzen Datu Base Nazionala (BDNS).

Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren 2021eko azaroaren 25eko Akordioaren 16. apartatuaren arabera, gastuaren erregularotasuna betetzen den kontrolatu behar da, eta finantzaketa bikoitza prebenitu. Bada, horretarako oinarritzko tresna da Dirulaguntzen Datu Base Nazionala (BDNS), eta, beraz, laguntzak emateko prozeduran, datu-base hori erabili beharko da kontsultak egiteko, eta orobat azpimarratu beharko da zenbateraino den garrantzitsua informazioa emateko betebeharra zuzen betetzea, datu-base hori hornitzeko (martxoaren 8ko 130/2019 Errege Dekretua).

Hogeita zazpigarrena.– Datuen babesia. Oinarrizko informazioa.

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta izen hau duen tratamendu-jardueran sartuko dira: Ikastetxeen eta plangintzaren arloko laguntzak eta dirulaguntzak.

Arduraduna: Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: dirulaguntzak ematea 0 eta 3 urte arteko umeentzako haur-eskolen titular diren EAEko udalei, arte plastikoetako eta musikako ikastegiei, irakaskuntza-kooperatibei, ikasleen guraso-elkarteei (IGE) eta horien federazio eta konfederazioei, eta Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkarteei.

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

Hartzaileak:

- Ekonomia eta Ogasun Saila.
- Autonomia-erkidegoko beste organo batzuk.
- Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa.
- Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioa.
- Europako Batzordea.

Eskubideak: eskubidea duzu datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean:

www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/045400-cap2-eu.shtml

Araudia:

– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena (boe.es).

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa:

https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf

Era berean, dirulaguntza honen entitate onuradunek baimena ematen diote Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari beste organismo publiko batzuetan egiazta ditzan aurkeztutako agiriak.

II. ERANSKINA

2021-2022, 2022-2023, 2023-2024 ETA 2024-2025 IKASTURTEETAN HELBURU
BERERAKO ESKATU EDO JASOTAKO LAGUNTZEN ZERRENDA

Organismoa	Egoera (emanda/eskatuta; adierazi multzoa hautatutakoan)	Ebate- edo eskaera- data	Zenbatekoa
Guztira			



III. ERANSKINA
DIRU-SARREREN ETA GASTUEN AURREKONTUA

Gastuak:

Gastuak, guztira	

Diru-sarrerak:

Dirulaguntzak	
Udalaren funts propioak	
Diru-sarrerak, guztira	



IV. ERANSKINA
PLAZA PUBLIKO BERRIEN AURREIKUSPENA ETA OBREN HASIERA- ETA AMAIERA-DATAK

Ikastetxea	Kodea	Herria	Maila	2021-01-01etik aurrera sortutako plazen kopurua	Obraren hasiera-data	Obraren amaiera-data	Zerbitzuan hasteko ikasturtea

V. ERANSKINA

SUSPERTZE ETA ERRESILIENTZIA MEKANISMOAREN FUNTSEN KONTURA FINANTZATUTAKO KONTRATUEN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK, SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN

